

Luis Mari Mujika Urdangarin

Eskailerak jaitsita ostatuko jangelan aurkitu ziren denak. Bazkaltokian platera zarata gaitza zen. Festa handiren bat ospatzen ari ziren egun hartan, nonbait.

Jangelako hormaren kontra loza ederrezko platera, plateraska, konkil, zopaontzi, kikara eta teontziak ikus zitezkeen. Baita zilarrezko ontziteria ere (erretiluak, goilareak, sardeskak, labanak, errautsontziak, eta abar).

Bazkaltiarren artean gizon bat biziki altua, dotorea, segaila zen; galaiak ez zituen begiak kentzen kofia zuria buruan zeraman neskatxaren soinetik. Masaila sendo eta sudur irmoaren zilueta nabarmen bere betartean. Bikor batzuk disimulatzen zituen, diskretuki, sudur ondoko xokoetan. Gizona Gaizka Ofizialdegi zeritzan.

Behin gelara sartuta, gizon altuak armarioko apalean utzi zuen tolestaturik tita berdostazko gorbata. Astiro askatu zituen alkandora zuriaren botoiskak. Armairo-ateko ispilura soegiten ohartu zen, ordea, alkandorak izerdi-makulak zituela galtzarbetan.

Kaniletik ura isuri zuen konketara. Basoaz ur pitin bat edan zuen. Goizean emaniko brilantinak oraindik lustretsu zirauen buruko iletan. Zapaldurik mantentzen zitzaion behin bateko tximaje kalpartsua. Alkandoraren almidoizko lepoan ile-izpi ziztrin batzuk aurkitu zituen.

Hurrengo egunean jangelara jaistean, bizkarrean tobaila zeraman gizon adineko batekin topatu zen pasiloan, komunetako dutxetarantz. Hanka meharretan ile urdin-bakanak zituen agirian, itxura narrats batez.

Ostatuko etxeanderea emakume harro-bandera zen. Dibortziatua zegoen. Pasilo estu eta ilunetan emekiaren zilueta interesanteagoa egiten zen... Argi-ezean, batzutan, gizonetzkoek gela-atea erratzen zuten, eta emakumeen koartoetan sartzen. Gehienetan, ordea, maliziarik gabe gertatzen zen halako, etxeandereak uste zuenez.

Ofizialdegi jaunak, bada-ezpada, papertxo batean idatzi zituen bere izen-deiturak, eta, txintxeta batez, zurezko atean itsatsi. Horrela ez zuen sorpresarik izanen gelan sartzean.

Sukaldeko jakien usaina ostatu guztira hedatzen zen, goizetan bereziki, pasiloan zehar. Beraz, bazkaltzera joan aitzinetik, ostari gehienek zekiten eguerdian babarrun-eltzekaria, okela errea, arraina, tortila edo bestelakorik zegoela.

Afalostean, gelara itzultzerakoan, Ofizialdegi jauna, kasu, nahastu egin zen atiaz, pasiloan argi-indarrik ez zegoelako. Bere gela zelakoan, sarrailari bira emanda, argirik gabeko koartoan sartu zen. Argi-giltza bilatu nahiaz, armariorantz joan zen, baina berehala ohartu gelaz erratu zuela. Ez zuen aurkitzen argi-giltza. "Non demontre sartu naiz?" pentsatu zuen. "Norbaitek emakumezkoen gela honetan apropos sartu naizela esanen du"

Armarioko ate irekiarekin topo egin zuen ilunpetan. Gero apaletan zeuden emakumezko jazkiekin (zetazko konbinazioa, galtzerdi fin eta luzeak, perfume sarkorrezko beste jazkiak, enkaje gorritzko gonak, bufanda lisatua, zeta beltzeko sostenak, eta abar zeuden).

Ofizialdegi jaunaren irudimena supituan piztu zen. Oin-hotsak entzun zituen atetik hurbil, gelarantz zetorren pertsona batenak. Gure gizona janzki haietan sarturik egon ziren emakumezkoaren sabel limuri, bular gozo, hanka segailetan pentsatzen jarri zen. Gero konbinazioa sudurretara eramane zuen, jazkiaren urrin sentsuala hurbilgotik usnatzearren. Xokoz-xokoz, atalez-atal, jazki haiek beteko zituen emakumearen anatomian zuen burutapena.

Oin-hotsak orain hurbilago entzuten ziren. Ezkutatu behar zuen, gelako atea irekitzeaz zegoelako. Pentsatu bezala, neska lerdan baten zilueta ikusi zuen gelara sartzen, eta, hain zuzen, jangelan Oihane izenez ezagutua-rena. Ofizialdegi jauna, armarioan sartuta, arnas-hotsik ez ateratzen ahalegindu zen. Ezin zuen mugimendurik egin.

Neskatxak argia piztu zuen, eta, hasperen bat botaz, "zein narratsa naizen!" esan gona erantzia ohe gainera jaurtikiz. Goizean utziriko gabardina ohe gainean zegoen; berdin ligeroak eta galtzerdi marroiskak. Gero "bai despistatua naizela!" erantsi zuen. "Abanikoa, gaur ere, jangelan utzi dinat...Noan hartzera, bestela, betirako galduko dinat... Bero onekin ezin den..." Bitarte hartan, nahiz eta urduri, jaun ezkutatuak Oihaneren gonarik gabeko anatomia erdibilutsa kontenplatu ahal izan zuen, kaderen sendotasun xarmanta, bular garaien harrotasuna, izterren linealtasun ihesia begiekin, ia-ia, haztatuz.

Neska jangelara jaitsi zenean, gure jaunak, armariotik aterata, gela uzteko aukera izan zuen. "Zein estuasuna nerea!" komentatu zuen behin gela propiora sartu zenean. Une batzuk beranduago Oihaneren gela-atea irekitzen entzun zen. "Eskerrak ahantzi zaiola abanikoa, bestela zer esanen nion...?" erantsi zuen Ofizialdegi jaunak, alkandora silaren bizkarrean eskegiz.

Gorka Ofizialdegiri bizitzan amodiozko desliluramenduek bihotza aski lehor utzi zioten. Hasieran bai xoratzen zen eme biluts bat ikusteaz, baina orain ez zuen emozioa luzaroan gordetzen. Asko ikusia zen.

Goizean leihora atera zenean, Gorkak Oihaneren ileadatsen isuria erdinabaritu zuen armarioko ispilua jiratzean, nahiz eta islada aski iluntsua izan. Gizonak irudimenean zuena ikus zitekeena baino soberagoa zen.

Handik hogeita minututara Ofizialdegi jaunak Oihane beheko ezkaratzean ikusi ahal izanen zuen. Neskak janzki lasaka bat zeraman goi-soinean, eta galtza urdinak izter-kaderei ongi hertsatuta. Agian, sostenik ez zeraman, bular oparo biak edozein mugimendura baldanki higitzen baitzitzaizkion. Begi berdetatik aparteko xarma

eta samin ezkutua zerion, abaniko exotiko baten (pagoda eta buda margotuen) bitxiduretan girotua bezala.

Alboko eskribau zaharkitua, gizon narrats baten itxura eta txamarran argizarizko makulatxoak zituena, ez zebilen Ofizialdegi jauna bezain adi neskaren anatomia beha. "Hala izanen da"; "baliteke..." "auskalo..." ganoragabeko batzuk esaka zirudien agureak ezkaratzean. Noiznoiz, mahai batera baldanki botatako egunkarian ezartzen zituen begiak; albistetatik ezerk ez zion atenziorik ematen. Bizitzak ez zuen lilurarik, dagoeneko, eskribauarentzat.

txarrez sartu bere gelan, pasiloa ilun zegoan... Hori behar genian, kontxo!" erantsi zuen.

Ohianek paparrera makurturiko ile-adatsak bizkarre-rantz itzultzen zituen nagi. Ostatutik irteterakoan, lehenik neskak, eta ondoren Ofizialdegi jauna, espaloitik beste aldean zetzan kafetegian sartu ziren.

-Zer izanen da. Kafe hutsa, kafe ebakia, laranja, zerbeza ala besterik? - galdegin zion zerbitzariak Oihaneri.

-Nik kafe hutsa - neska zigarroa arduratsuki poltsatik ateraz.



"Neska hau ez duk ohartu bere gelan gordeta egon naitzela" pentsatu zuen Ofizialdegi jaunak, neskaren presentzia hurbilago sentitzean. "Ez, ez, ni ez nauk asmo

-Eta zuk, jauna?

-Nik, mesedez, te apur bat. Gaur urdaila ez daukat behar bezala.

Hautsontzia hurbiltzeko eskatu zion Oihanek ostatu berean bizi zen Ofizialdegi jaunari. Neskaren eta jaunaren hatzek topo egin zuten hautsontzia hurreratzean. Neskari irriantz sotil bat itzuri zitzaion ezpain karmin-dunetatik, eta gizonari “barkatu!” lotsati bat atera. “Barkatu!” hark, ordea, “zure hatzak eta atzazal margotuak, zure espainak eta betazal tindatuak arras gustoko zaizkit” esanbide zuen, oso astitsu eta nagi ahozkatu baitzuen.

Handik aitzinera bien solasa erosoagoa egin zen. Neskak lehenetan “deus ez da, ez arduratu horregatik” izuti erantzun bazion ere, gerora elea arindu egin zuen.

-Kafetegi honetan aparteko sandwichak egiten dituzte. Askotan lantegira eramaten ditut, eta inoiz etzait ezustekorik gertatu, hain baitira gozo eta on, urdaiaz-piko erditxirpildua tartean dutelarik.

-Bai, hala entzun dut – komentatu zion Ofizialdegi jaunak.

Gibelego mahaitxoan bi gizon ari ziren ekonomiaz mintzo. Bilbo eta Madrilgo burtsetan akzioek jasandako gainbeherez zuten hizketa. Zerbeza-aparrezko kondar horail batzuk zituen bibotean jaun adinenekoenak. Besteak sardeska era oso kurtsiz sartzen zuen sandwichean, labantxoaz zatiskak eginez.

Beste mahaitxo batean sudur-purrustaka ari zen gizonak mahaikideari “oraingo neska gehienak puta hutsak dituk” komentatzen zion, ahots aski ozenez. Oihanek entzun zuen aldrebekeria hura, eta gorri-gorri jarri zen.

-Barkatu, astakeria hori... iraingarria da, ene ustez – Ofizialdegi jaunak.

Neskak irribarre xumez onartu zuen gizonaren desenkusa. Hala ere, Ofizialdegi jauna “auskalo..., ausaz egia duk” pentsatuz bezala gelditu bide zen.

Oihanek, aulki altuan eserita hankak luzatu zituen.

Izter erdi-bilutsetan ligeroaren marra erdisuma ziezaioken. “Zuek, Bilbon azken hilabeteen akziok erosi dituzuenak ongi atera zarete. Madrildarrena, ordea, beste kontua da, hango burtsak kabriola gehiegi dagi” – entzun zuen Ofizialdegik gibelego mahaitxoan.

Oihanek kikaratik kafe, jada, erdihoztuaren hondarrak hustu zituen, eta aulkitik xeratsu altxatu. Ofizialdegi jaunari oraindik te erdia geratzen zitzaion. Neskaren agurra jasotzerakoan “nola so egin didan!” pentsatu zuen. “Zein itsaskorra eme honen begirada hartara jartzen denean...!”

Kafetegitik ostatura itzultzean, zuzenean, atezainarengana jo zuen gure gizonak

-Arren, presta egidazu ostatuko nire egonaldiaren kontua; bihar goizez uzten dut ostatua eta.

-Ongi da – atezainak emeki -. Eguerdirako gelako mahai gainean ukanen duzu. Ez kezkatu.

-Eskerrik asko.

Arratsaldean Gaizka Ofizialdegi gelara igo zenean, harri-duraz ohartu zen serrailak bira emana zeukala, eta atea irekita zegoela.

-Nola? Atea irekita? Ze despistatua! Gela itxi gabe utzi dut goizean...

Gelara sartzean, leihotik arratseko eguzki apalaren azken izpi urrezkoak sartzen ziren. Besterik gabe, txamarra erantzita, gorbata lasatzen eta alkandora kentzen hasi

zen, beti leihorantz so. Beste aldera, ordea, biratzean, ile-adats laxo-luzezko neska lerdena, goizean kafetegian solaskide izan zuena, ohe gainean etzanik ikusi zuen.

-Ah, barkatu, jauna! Hau ez da nire gela! Zertan nabil nahastuta! – sasi-desenkusaz neskak.

-Nola sartu zara nire gelara? – jaunak.

-Pasiloan ez dago argirik eta, nire gelan zelakoan, aurkitzen naiz hemen. Ostatu mixerablea! – erantsi zuen, azken halako irriantz sentsual bat galduz.

-Nire gelak 33 zenbakia du, eta zurea 35a izanen da, nahiz eta ateburuan idatziriko izena ez ikusi... Oihanek ordurarte estalita gordetako izterrak, apurka agirian utzi zituen.

Gizonezkoa konturatu zen neskaren asmoetaz, baina “ez da harritzekoa gelaz erratzea pasiloko ilunpetan” esatera mugatu zen. “Hurbil egizkidazu zapata horiek, arren” ekin zion Oihanek. Ofizialdegik oinetakoak itzultzean, Oihanek gizonezkoaren eskuak bilatu zituen, eta hertsiki heldu, ezpainekin jaunaren ahoa leihatsuki antzemandez.

-Ez. Utz nazazu bakean – gizonak ukondoko bat disimuloz emanez-. Ez nago horretarako ostatu honetan.

-Ofizialdegi jauna, aspalditik ezagutzen gara, Ahantzi al zaizu orain hamabost urte elkarrekin bizi izan ginela?

-Nola elkarrekin bizi?

-Noski, seminarioan. Ni Eusebio Belkoian nauzu. Zuk ordena tipiak hartu zenituen teologoa zinela, eta ni, “amistades particulares” mantendu nituelako, kanpora bidali ninduten, homosexual bezala. Seminario utzi nuenetik beti egon naiz zurekin pentsatzen. Orduzkeroz enamoratua naukazu.

-Zer esaten duzu? Seminarioko Eusebio Beltokian bazara, gizonezkoa zara...

-Bai maitea...- sugerenteki, ahotsa ematuz, emakume erara jantzita zegoenak.

-Urte guzti hauetan zurekin topatzeko irrikitan egon naiz.. Horretara etorri naiz ostatu honetara.

Gorka Ofizialdegik desitsasi egin zuen, aski zakar, Eusebio Belkoain seminarista oiharen eskua bere besotik, eta, eskaileretan jaitsita, ostatuko kontua ordaindu ondoren, ospa egin bizkor.

Hurrengo egunean Ofizialdegi jaunak egunkarian irakurri zuen “Amets eder” ostatuan Eusebio Belkoain deituriko travesti bat gelako leihoaren markotik urkatua aurkitu zutela.